



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

6. Ordenantza Fiskala Zaborrak jasotzeagatiko tasa

I. IXEDAPEN OROKORRA

1. ARTIKULUA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauko 21. artikuluan xedatu denarekin bat etorritik, Norbanakoen Etxeetan eta Establezimenduetan Zaborra Biltzeagatiko Tasa ezarri da. Tasa horretan zerga ordenantza hau izango da aginduzko, eta honen arauak aurrean aipatutako abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauan ezarritakoaren arabera izango dira.

2. ARTIKULUA

Udalak aplikatu daitezkeen kudeaketa moduetako zeinahi aplikatuz egin dezake zaborra biltzeko zerbitzua, Toki Araubidean horretaz indarrean dagoen legerian ezarritakoarekin bat etorritik.

II. ZERGA EGITATEA

3. ARTIKULUA

1. Tasaren zerga egitatea etxeetako eta industriako edo merkataritzako jarduerak, lanbide jarduerak, jarduera artistikoak edo zerbitzuen arlokoak egiten diren lokal edo establezimenduetako zaborrak eta hiriko hondakin solidoak biltzea da.

2. Hori dela eta, etxeako zabor eta hiriko hondakin solido dira lokalen eta etxebizitzaren ohiko garbiketaren ondoriozko janari hondarrak eta detritusak, eta ez dira halakotzat hartuko industrietako hondakinak, obretako eskonbroak, giza detritusak, gai eta material kutsatuak, korrosiboak, arriskutsuak edo biltzeko edo isurtzeko garbitasun edo segurtasun neurri bereziak eskatzen dituztenak.

3. Zerbitzua borondatezkoa denean izan ezik, etxeako zaborra biltzeko zerbitzua nahitaezkoa da egiten den alde eta kaleetan, eta beraren antolamendurako eta funtzionamendurako Udalak edo Debabarreneko Mankomunitateak emandako arauak hartu behar dira aintzat.

III. TASA ORDAINDU BEHARRA

4. ARTIKULUA

1. Tasa ordaindu beharra zerbitzua egindakoan sortzen da. Zerbitzua orokorra eta nahitaezkoa denez, ezinbestekoa da hura ordaintzea, eta kuotak, dena delako alde edo kalean zerbitzua eginez gero, ezin txiki daitezke, erabili zein ez.

2. Tasatik kanpo daude, alderdi batek eskaturik eta borondatez egiten direnean, hurrengo zerbitzu hauek:

a) Ez etxeko ez hiriko ez diren denda, industria, ospitale eta laborategietako zaborrak eta hondakinak biltzea.

b) Berokuntza zentraletako eta industrietako sarrak eta errautsak biltzea.

c) Obretako eskonbroak biltzea.

d) Altzariak, tresnak eta trasteak biltzea.

Horrelakoetan, tasa ordaindu beharra zerbitzua baimendutakoan sortzen da.

IV. SUBJEKTU PASIBOA

5. ARTIKULUA

1. Tasaren kargapean daude zerbitzua egiten den toki, plaza, kale edo herri bideetan dauden etxebizitza eta lokalen edukitzaile, okupatzaile edo erabiltzaile diren pertsonak: jabeak, gozamedunak, bizitzaileak, errentariak, are prekarioan bada ere.

2. Gainera, subjektu pasiboen ordeztasa ordaindu behar dute zerbitzua egiten den higiezinaren jabeek eta jabe erkidegoek.

3. Norberaren borondatez egiten diren zerbitzuetan, subjektu pasiboa eskatzailea da.

V. ZERGA KUOTA

6. ARTIKULUA

Zerga kuota lokal unitateko kopuru finkoa izango da, higiezinaren izaeraren eta xedearen arabera zehaztuko dena.

VI. TARIFA

7. ARTIKULUA

Hiru hiletik behin honako tarifa aplikatuko da:

KONTZEPTUA	EUROAK
1. ETXEBIZITZAK	
Etxebizitza bakoitzeko	54,45
Etxebizitzatzat hartzen da	
Familia baten ohiko egoitza, beti ere hamar pertsona baino gehiagorentzat ez denean	



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

6. Ordenantza Fiskala Zaborrak jasotzeagatiko tasa

KONTZEPTUA	EUROAK
2. BIZITOKIAK	
Pentsioak, eta apopilo-etxeak eta antzeko bizilekuak	167,65
Bizitokiak dira elkarbizitza kolektibo ez familiarerako diren lokalak, beti ere hamar pertsona baino gehiagorentzat direnean.	
3. ELIKADURA-ESTABLEZIMENDUAK	
A) 300 m 2 edo gehiagoko azalera duten supermerkatuak, ekonomatuak eta kooperatibak	1.787,95
B) 300 m2 baino gutxiagoko azalera duten supermerkatuak, ekonomatuak eta kooperatibak	447,00
C) Fruta, barazki eta ortuarien handizkako edo txikizkako biltegiak	447,00
D) Arrandegiak eta antzekoak	447,00
E) Harategiak eta urdaitegiak	357,00
OHARRA: Fruta-denda, arrandegi eta/edo harategi jarduerak egiten diren supermerkatu, ekonomatu eta kooperatibak C) epigrafeetan sartu beharko dira. D) eta/edo E)	
4. JANARI-ESTABLEZIMENDUAK	
A) Jatetxeak	447,00
B) Kafetegiak eta pubak	447,00
C) Tabernak	447,00
D) Dantzalekuak eta diskotekak	447,00
5. IKUSKIZUN-ESTABLEZIMENDUAK	
A) Zinemak eta antzokiak	167,65
6. BESTE INDUSTRIA- EDO MERKATARITZA-LOKAL BATZUK	
A) Merkataritzako lokalak	167,65

KONTZEPTUA	EUROAK
B) Banku-bulegoak	350,75
C) Biltegi orokorrak eta merkataritzakoak	167,65
D) Industria-establezimenduak	350,75
E) Berariaz tarifatu gabeko gainerako lokalak	167,65
7. BULEGO PROFESIONALAK	
Bulego bakoitzeko	167,65
Bulegoa edo establezimendua etxebizitzan bertan badago, bereizketarik gabe, aurreko tarifa bakarrik aplikatuko da, eta bertan sartuko da 1. epigrafekoa.	
8. IBILGAILUAK GORDETZEKO LOKALAK ETA HUTSIK DAUDENAK	
A) Lokal hutsak eta 10 kotxe arteko edukiera duten ibilgailuak gordetzeko lokalak	79,20
B) 10 autotik gorako edukiera	167,65
9. UDAL-MERKATUKO POSTUAK	
Arrandegi, fruta-denda eta antzekoetako merkataritza-jarduera bakoitzeko	163,00
Taberna, urdaitegi, harategi eta antzekoetako merkataritza-jarduera bakoitzeko	108,65
Gainerako merkataritza-jarduerak, unitateko	97,80

VII. KUDEAKETA ETA BILKETA

8. ARTIKULUA

1. Zerbitzua lehenengoz erabili edo egiten den egunean tasa sortutzat joko da eta subjektu pasioboek erroldan inskribatu beharko dute, alta adierazpena aurkeztuz.

2. Altaren ondorioak berori eskatu den hiruhilekoaren lehenenego egunetik aurrera aplikatuko dira; bajak, berriz, berori eskatu den hiruhilekoaren hurrengo hiruhilekoaren lehenengo egunean.



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

6. Ordenantza Fiskala Zaborrak jasotzeagatiko tasa

Tasa ordaindu behar duten pertsona fisiko zein juridikoek alta,- baja- zein aldaketa-adierazpenak aurkeztu beharko dituzte kobrantza egiten duen Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren Ermuko bulegoan, bai eta ordainarazpen hau behar bezala aplikatzeko eskatuko zaizkion datu guztiak eman ere.

3. Udalak, ofizioz edo interesatuek jakinarazirik, erroldako datuetan izandako aldakuntzen berri jakiten duenean, behar diren aldarazpenak egingo ditu erroldan, eta aldarazpenok ondoreak izango dituzte aldakuntzaren berri eman eta hurrengo kobrantza-alditik aurrera.

9. ARTIKULUA

Hiruhilero errolda bat egingo da ordaintzera behartutako subjektu pasiboen izena eta helbide fiskala jasoz, bai eta ordaindu beharreko oinarri eta kuotak ere.

Udal organo eskudunak onetsi eta gero, erroldak jendaurrean azalduko dira erreklamazioak egin ahal izan daitezen.

10. ARTIKULUA

Udalak udal zergak batera edo banan kobratzeko ezarritako ordainagiri bakarrean edo ordainagiritan jaso ahal izango dira tributu honen kuotak. Udal Administrazioak bankuko helbideratze sistema ezarri ahal izango du tasa ordaintzeko, aurretiaz zergaduna ados agertuz gero.

11. ARTIKULUA

Hiruhileko erroldetan jasotzen diren zerga-kuotak Gipuzkoako Ur Partzuergoak ezarritako datetan kobratuko dira uren ziklo integralari dagozkion kuotekin batera.

VIII.URRATZEAK ETA ZEHAPENAK

12. ARTIKULUA

Zergaren ikerketari, zerga urratzeen kalifikazioari eta urratzeen zioz ezarri beharreko zehapenei dagokien guztian Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean horretaz xedatutakoa bete beharko da.

IX. AZKEN XEDAPENA

Zaborra Biltzeagatiko Tasa araupetu duen Zerga Ordenantza 2026ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, behin betiko onetsi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2025eko abenduaren 31ko 249 alean argitaratu eta gero, eta indarrean egongo da harik eta hura aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.